

# Ikasleen Txokoa

# Hernani Institutua



«Iparraldetik hiru lagun etorri gira  
Hernaniko institutura ikasketak burutzera  
elektrizitate arloan» / II



Langabezia: lan motibazio desberdinak  
'Los Lunes al' Sol pelikula / III

AGURTZANE MANTEROLA

UNAI LACADENA ARRIETA - HERNANI INSTITUTUKO IKASLEA  
IV / Wrocław-tik praktiketako kontakizunak



## «Iparraldetik hiru lagun etorri gira Hernaniko institutora ikasketak burutzera elektrizitate arloan»

Hezkuntek elkartearen bitartez, Iparraldeko 13 gazte ari dira gaur egun Donostialdea inguruan ikasketa ezberdinak egiten. Horietako hiru Hernani Institutoan.

Pausu hori Hezkuntek elkarteari esker egin izan ahal dugu, beraiek erakutsi digutelako Hegoaldean ikasketak segitzeko aukera genuela nahiz eta Iparraldekoak izan.


GAUR egun Iparraldetik 13 gazte gira Donostiako Lasalle ikastegiaren barnategian aterpetuak, elektrizitatea, mekanika, erakaskuntza... ikasten eskola ezberdinetan.

Hezkuntek elkarte arrazoi ezberdin batzuegatik sortua izan da: alde batetik, Ipar Euskal Herriko egoera ekonomikoa bultzatzeko, bereziki industria arloan, enpresa berrien sortzea bultzatuz. Bestalde, Iparraldeko gazteei ikasketa teknikoak EH-n eta euskaraz segitzeko aukera emaitako. Gazteak bultzatzeko diru laguntzak eskaintzen dituzte eta horren truke gazteok iparraldeko industriaren garapenean parte hartu beharko dugu.

### Hegoaldean ikasteko motibazioak

Hegoaldera ikastera etortzeko motibazioak honela laburbiltzen ahal genituzke: garrantzitsuena goi mailako elektroteknika ikasketak euskaraz egitea eta lehen aipatu bezala EHan egoitea. Hala nola, iparraldean batxilergoaren ondotik ez dugu gure hizkuntzan ikasteko posibilitaterik. Horren ondorioz gazte asko kanpora, Frantziarat, joan behar dute beraien famili ta lagunengandik urrun, gehienetan Bordale edo Toulouse aldera. Egoera hori errepikatzen da gazte bat lanbide bila denean. Ama-hizkuntzan ikasteaz gain, asteburu guziz etxerat itzultzeko aukera emaiten digu, eta ohar-tzen gira denek ez dutela aukera hori.

Horrez gain, Hegoaldean bizitzera etortzeak gogo handia eman digu. Bertako giroak ilu-



Hernaniko Institutuan elektrizitatea ikasten ari diren hiru lapurtarrak.

sioa emaiten digu, gauza arrunt batzuegatik, adibidez arrats-tan jendea herriko plazan biltzen dela ikusteak pozten du, Iparraldean, hori desagertu baita poliki poliki. Gero ta gehiago, jendea bere xokoan bizi da, arrats-eko zazpitan gehienak etxean dira telebista aintzinean eta ez da gehiago lehen bezala jendea

karrketan biltzen elgarren artean hitz egiteko, zahar batzu ezik.

Gure herrietako bizitza gero ta tristeago egiten da, nahiz eta gaztetxe eta gazte asanbladek hor diren herriko giroa berpizteko eta kultura biziartzeko. Hegoaldean erabat harritua gira gaueko 8tan zahar ta gazte, denak nahastuak herriko plaza

ta tabernetan ikustea. Ez pentsa gure herrialdea herrialde hila dela, baina ohiturak galtzen dira emeki.

### Euskaraz Hegoaldean

Euskara praktikatzeko aukerak ere bultzatu gaitu, iparraldean ez baita beti erres: jende batzuek ez dakite ezta zer den euskara.

ekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## ANI INSTITUTUA

Euskararen egoera instituzioetan eta administrazioetan hobe ez aipatzea, desastre bat da.

Hegoaldean, berdin jende guztiak ez daki euskara, hala ere, zerbait eskatzen badugu guttienez ulertu eta kasu batzutan indar bat eginen du euskaraz erantzuteko. Baina errealitatea ikusteko aukera izan dugu ere. Ohartu gira nahiz eta jende gehienak euskaldunak izan eta hizkuntza ofiziala izan, hemengo egoera ez zela hain ezberdina: jendeak euskara daki, baina erderaz hitz egitea nahiago du askotan. Hala ere, argi da euskararen egoera hobe dela Hegoaldean.

### Hernaniko institutoan gustora

Hernaniko institutoan gustora pasatzen dugu euskaraz ikasiz. Ikasleekin arremkanak sortu ditugu eta haiekin lagun bilakatu gira. Egia erran oso zaila egin zaigu, Ekhi eta Jon, gure 2 ikaskideak atxilotu ziztuztelarik

martxoaren 31ko sarekadan. Hegoaldeko benetako egoera larri hau bizi izan dugu, nahiz eta jakin nola pasatzen zen.

Erakasleen aldetik, ongi antolatzen gira, eta kurtso denboran iparraldekoak girela kontutan hartzen dute ala nola kurtso batzu adaptatu dizkigute bereziki legediaren aldetik. Lehen aipatu dugunez, elektrizitatea ikastera etorri gira eta horri buruzko legeak ez dira beti berdinak "España" eta "Frantzia" mailan eta institutoko erakasleek biak ikusteko aukera eman digute. Administrazio mailan ere hainbat paperen betetzen lagundu gaituzte eta horretarako eskertu nahi genituzke.

Hizkuntzaren aldetik ere noizbehinka arazo batzu agertu zaizkigu euskalki ezberdinak erabiltzeagatik eta hor ere beti laguntzeko prest izan dira. Azkenean, hasieran "bitxi" egiten zitzaigun egoera (beste euskalki batean ikastea), arunt "naturala" bilakarazi dute. ||

## ▶ GURE PRESENTAKETA PERTSONAL LABUR BAT:



**Iker Goyenche** deitzen naiz, 22 urte ditut eta Uztariztarra naiz (Lapurdi). Nere ikasketak ikastolan egin ditut baita batxilergoa. Batxilergoaren ondoren Andoainera joan naiz goi mailako soinu ikasketak egitera. Horren alde teknikoak sakontzeko nahian etorri naiz elektroteknika ikastera Hernanira. ||



**Mattin Oronoz** deitzen naiz, 19 urte ditut eta iparraldekoa naiz, Saratarra (Lapurdi). Ikastolatik ateratuta, Batxilergoa eskola frantses batean pasatu nuen, elektroteknika mailan eta aurrean Hernanira etorri naiz Elektroteknika goi mailan ikastera euskaraz. Nire motibazio handienak izan dira Euskaraz ikastea eta hegoaldeko bizi moldea eza-gutzera. ||



**Haritz Agirre Esnal** deitzen naiz, 18 urte ditut eta Urruñatik (Lapurdi) etortzen naiz. Nere lehen ikasketak ikastolan egin ditut, batxilergo iritxi arte, hor frantsesez ikasiz gero gogoia izan dut ikasketak berriro euskaraz hastea hizkuntza galtzen nuelako ta horrez gain ez nuen nahi ama lurratik kanpo joan ikasketak egitera. Ondorioz Hernanira etorri naiz nere ikasketak burutzera elektroteknikako goi maila bat eginez. ||

## ❖ IRITZIA

# Langabezia: lan motibazio desberdinak

### 'LOS LUNES AL SOL' PELIKULA

**Zuzendaria:** Fernando León de Aranoa.

**Urtea:** 2002.

**Herrialdea:** Espainia.

**Iraupena:** 113 min.

**Antzezpena:** Javier Bardem (Santa), Luis Tosar (José), José Ángel Egido (Lino), Nieve de Medina (Ana), Enrique Villén (Reina), Celso Bugallo (Amador), Joaquín Climent (Rico), Aida Folch (Nata), Serge Riaboukine (Serguei), Laura Domínguez (Ángela), Pepo Oliva (Samuel), Fernando Tejero (Lázaro).

**Gidoia:** Fernando León de Aranoa e Ignacio del Moral.

**Musika:** Lucio Godoy.

**Ekoizpena:** Elías Querejeta.

**Argazkia:** Alfredo Fernández Méndez.

**Muntaia:** Nacho Ruiz Capillas.

**Zuzendaritza artistikoa:** Julio Esteban.

**Jantziak:** Maiki Marín.

**Estreinaldia Espainian:** 2002ko irailaren 27an.



'Los lunes al sol' pelikularen karteal

### Pertsonaiak:

**Santa:** Pertsonaia hau, "vivi-dor" bat da, hau da, bere bizi-modua edozein modutan darabera, ez du erantzukizunik... Langabezia daramanetik ez du lana aurkitzeko behatz bat bera ere mugitu. Hala ere, ez dirudi horregatik arduraturik dagoenik. Hori bai, bere aurreko enpresaren, "astilleroen" aurka egiten diren mugimendu guztien alde azaltzen da.

**Rico:** Pertsonaia honek, lanetik botatakoan jaso zuen kalte ordainarekin taberna bat ireki zuen, gizon honek, familia bat mantendu beharra duela kontuan hartu behar da. Tabernan

gutxi gora behera ondo doakionez, ez du arazo handirik. Baina, bere laguna Santaren kritikak maiz jasotzen ditu, berak kalte ordaina hartu eta "astilleroak" uzten dituelako bukaeraino borroka egin gabe.

**Paulino:** Gizon honek, lana bilatzeko, bere eskuetan dagoen guztia egin arren ez du lanik bilatzen, honek asko deprimitzen du. Zaharra sentitzen da eta gainera ezin du lanik bilatu. **Jose:** Pertsonaia honek nolabait esatearren ez du izaerarik. Santaren atzetik ibiltzen da egun osoan eta gainera, bere emazteak etxetik kanpo lana egiten du, hau ez zaio batere

gustatzen, emazteak mantentzen baitu. Hala ere, berak ez du ezer ere egiten hori aldatzeko. Bere emaztea berarekin geratzen da penagatik.

**Amador:** Pertsonaia hau, bakar bakarrik dago, bere emazteak abandonatu duelako. Horregatik eta langabezia dagoelako edaten hasten da. Azkenean, bere buruaz beste egiten du.

### Iritzia:

Nire ustez, Ricok edo Paulinok hartzen duten jarrera onargarria da, azken finean, langabezia baldin bazaude, horri aurre egitea besterik ez zaizu geratzen. Baina Santak egiten duena ez zait ongi iruditzen, ez duelako jarrera baikorrik, edo hobeto esanda ez du egoera aldatu nahi. Amadorrek, pena ematen du nolabait, emazteak utzi duelako eta azken finean ez duelako inor ondoan laguntzeko. Joserena bereziagoa da, ez dutelako ulertzen zergatik ez duen lanik bilatzen, azken finean, bera da gazteenetakoa eta errazagoa izango du lana aurkitzea, baina hori baino lehenago emazteak mantentzen duela onartzea ongi etorriko litzaioke.

**Agurtzane Manterola (1DP3)**

### Laburpena:

Iparaldeko hiri bat, kostaldekoa, erreka batek zatitua. Gizon eta emakume ugari bere baserriak eta itsasoa utzi eta fabriketara joan ziren lanean, ontzioletara. Baina industria-birmoldaketa etorri zen. Ricoren tabernan, lagun koadrila bat batzen da denbora pasa eta berrikerian, makinatan... proiektuak eta gogoramenak nahastuz, frustrazio eta itxaropenak elkartuz. Ontziolaren itxiera fantasma

bat bihurtzen da. Beraien egutegian egun guztiak jai-egunak dira, baina etsipenez beterikoak. Eguna igandea da eta "astelehena eguzkitan" eta langabetua lanik gabe egotea da, baina Hego Ameriketako hainbat herrialdetan langabetua zutik egotea adierazten du.

**Azterketa:** Pelikula honetan lan motibazioari begira, ikuspuntu desberdinak ikus daitezke pertsonaia bakoitzean.

UNAI LACADENA ARRIETA - HERNANI INSTITUTUKO IKASLEA

## Wroclaw-tik praktiketako kontakizunak

Hernani Institutotik hainbat ikasle joan dira Europako herrialde desberdinetara ikasitakoak praktikan jartzera. Besteak beste, Iñaki Alejos, Iker Fuentes, Aitor Sanz eta Ivan Diez Italiara joan dira eta Unai Lacadena Poloniako Wroclaw hirira. Unaiak Wroclawtik bidali dizkigu bere praktikei buruzko nondik norakoak.

MARTXOAREN 12, ostegunean, goiz-goizetik atera ginen Loiuco aireportutik, 7:30tan hain zuzen ere. Bidaia ez zen zuzenean Loituk Wroclaw-era eta Frankfurt-eko aireportuan ordu t'erdi itxaroten egon behar izan genuen; etxe berdinean edukiko nituen lagunak ezagutzeko aukera ederra. Lehenengo itxura ez zen txarra izan eta pixkanaka konfiantza hartzen joan ginen bakoitzaren izenak eta jaioterriak ezagutzuz.

Azkenean, Wroclaw-en genuen etxera 14:00ak aldera iritsi ginen. Bertan, bakoitzak bere gelak aukeratu zituen eta dutxa azkar baten ondoren, hiriko toki batzuk bisitatzera joan ginen eta gure praktikak kudeatzen dituen enpresaren pertsonalarekin batera afaltzera joan ginen.

Asteburu horretan Krakoviako hiria ere bisitatu genuen. Hurrengo bi astetan ingeles eta polonierazko klaseak eman genituen.

Ondoren, bakoitza bere lanean hasi zen, nahiz eta batzuk pixka bat beranduago hasi. Nire kasuan, bi aste beranduago hasi nintzen.

### Nire praktikak

Lehenengo egunean, gure praktikak kudeatzen dituen lehen aipatutako pertsonaleko batek (Konstancja) eraman ninduen nire nagusia izango zenaren etxera, sinatu behar ziren dokumentuak sinatzeko. Ondoren, nire nagusiarekin instalazio elektrikoak egin behar nituen etxebizitzetara eraman ninduen eta nire lan-kideak izango ziren Tofik eta



Praktikak egiteaz gain, bazter berriak ezagutzeko aukera izaten da.

Stefan ezagutu nituen, denak oso atseginak.

Hurrengo egunetan, desilusio txiki bat hartu nuen denbora guztian paretetan taladorekin zuloak egiten eta eskoba pasatzen ematen bainuen. Hala ere, lehenengo egunetan lan hau Tofik eta Stefanekin egiten pasa ondoren, nagusiarekin hasi nintzen denbora guztian lanean.

Kasu honetan, lanak atseginagoak ziren eta nire heziketa zikloan emandakoarekin zerikusi handiagoa zuten, adibidez, kontagailuak aldatzen, entxufeen instalazioak konektatzen... Orokorrean, lanera gustorago joaten hasi nintzen. Hala ere, esan beharra dago, batzuetan hizkuntzarekin arazo batzuk izaten genituela, nahiz eta normalean nahiko

ondo moldatzen ginen ingelezaz.

Ordulegiei dagokionez, ez nuen ordutegi finko bat eta egunero nire nagusia etortzen zen bila. Aipatzekoa da nagusia nire bila etortzea oso zorte handia izatea zela, nire etxe berean praktiketan zebiltzan beste lagunek hainbat autobus eta tranbia hartu behar izaten baitzituzten kasu batzuetan. Gainera, egun batzuetan, mezu bat bidaltzen zidan egun hortan lanik egin behar ez nuela esanez. Orokorrean, lan ona tokatu zait eta oso gustora ibili naiz.

### Etxe barruko giroa

Lehenengo orduetan, konfiantza egitea kostatu zitzaigun, baina Krakoviara egin genuen bidaietan, geroz eta

erlazio hobeak sortzen hasi ziren guztion artean (egun guztia batera egonda normaltzat jo daiteke). Orokorrean, lehenengo egunetan gure etxean oso giro ona zegoen eta etxea ondo mantentzeko garbiketa txandak antolatu genituen, egongo ginen 3 hilabeterako. Baina, momentu batzuetan tira bira batzuk egon dira, adibidez, erosketak egitera beti berdinak joan eta azkenean nekaturik besteekin liskar txiki batzuk sortu dira.

Hala ere, orokorrean, giro oso ona eduki dugu eta lagun oso onak egin ditut hemen.

### Irteerak, bisitak eta gaueko giroa

Irteerei dagokionez, lehenago aipatu dudan moduan, lehenengo astean Krakoviara joan ginen eta bertan auzo judutarra, Wawel gaztelua eta Krakoviako beste hainbat txoko bisitatu genituen. Hauen artean, gehien harritu ginduena, hiri hontako plaza nagusiko elizako dorretik, orduro doinu bat jotzen zuen tronpetista izan zen. Gainera, lau aldiz jotzen zuen: hegoaldera, iparrera, ekialdera eta mendebaldera begira zeuden lehioetatik.

Bestalde, Pragara ere joan ginen eta esan daiteke Europako hiri ederrena ez bada, ederrenetakoa behintzat badela. Hiri honetan, ez genuen gida batekin bisitarik egin, baina gure aldetik buelta oso handi bat egin ondoren, Pragako eraikin eta toki politenak ikusi genituen.

Egin genuen beste irteera bat, Auschwitz eta

Birkenauko kontzentrazio kanpoetara izan zen. Bertan, gazteleraz hitz egiten zuen gida batek, bertan gertatutako guztiak kontatu zizkigun eta oso interesgarria izan zen, baita gogorra ere.

Azkenik, Berlinen ere egon ginen eta ondoan dagoen Potsdam izeneko beste herri batean. Berlinen, berriz ere, gazteleraz hitz egiten zuen gida batekin 4 orduko buelta bat eman genuen hiritik. Historiari buruzko datu oso interesgarriak eman zizkigun, batez ere, Berlineko harresiarekin zerikusia zutenak eta harresiaren bi aldeetan bizitzen ziren egoeraz. Ikusi genituen tokien artean, Alemaniako parlamentua, harresiaren alde batetik bestera pasatzen ziren pertsonen kontrola egiten zuen Checkpoint Charlie-a... Asteburu bakar batean egon ginenez, ez zigun denbora eman hiri osoa bisitatzera oso handia baita eta pena horrekin geratu ginen.

Gaueko giroari dagokionez, Wroclaw-en egunero dago giroa oso hiri turistikoa baita eta gu bezala joan diren beste ikasle asko baitaude. Orokorrean, bertako jendearekin ongi moldatu gara, nahiz eta gau pare batean arazoak eduki ditugun batzuekin.

### Gerorako asmoak

Praktiken denboraldi hau bukatu ondoren, nire helburua, ahal baldin bada lanean hasia da eta ez badut aukerarik horretarako, beste zerbaitek ikasi beharko da.

Unai Lacadena Arrieta.



**IES Hernani BHI**  
A. Iturriaga - K. Labaka

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271  
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550  
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

## ELEKTRIZITATEA

- Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)
- Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

## MEKANIKA

- Mekanizazioa (Erdi Maila)
- Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)

AURREMATRIKULAREN EPEA EKAINAREN 1etik 12ra

